

Ariketa hauek Ikasbileko 1981530 atazan aurkituko dituzu

**Audioaren erreferentzia:** JJ-48 Cosmotest

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** Hipotesiak egin, iritzia eman, galderak sortu, ondorioak atera, deskribapenak egin

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa (*lagun, testa, galdetegi, maitasuna, larrutan, egin, sexua...*), *lagun gisa, arren,*

**Azken ekintza:** Test bati erantzundakoa oinarri, pertsonaia ezagun baten izaeraren berri eman elkarri.

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

#### 1.1 Lagun berezia




Elkarrizketan lagun bereziei buruz hitz egingo dutela jakinda, ikasleak zein lagun-motari buruz arituko ote diren asmatzen saiatuko dira. Ondoren, airean geldituko den galderari erantzun posiblea emango diote. Ikasgelan partekatu eta erantzunaren berri izango dute.

#### 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.



Elkarrizketako hainbat esalditan erabilitako moldeak beste era batera idazteko ariketa

## 1- Entzun aurretik

### 1.2 Ezaugarriak eta galdera

  Irrati-nobela entzun baino lehen, partekatu dezatela ikaskidearekin  ariketan erantzundakoa. Jasoko dute, batetik, lagun bereziaz bakoitzak daukan ideia, eta bestetik, galderari erantzundakoa.

### 1.3 Jonen erantzuna

  Jonek lagun bereziari buruzko galdetegia egingo dio Joni. Ikasleek lehen zatitxoa (00:00-00:48) entzungo dute. Jonek erantzuna zein izan den jasoko dute eta beraiek aurretik erantzundakoarekin alderatu.

Ondoren, binaka, galdetegian zehar Jonek Joni egingo dizkion hurrengo 3 galderak aurreikusteko eta bertan idazteko eskatuko zaie. Elkarrizketa osoa entzungo dute eta entzundakoa beraiek proposatutakoekin alderatuko dituzte.

#### **Zuzenketa:**



Lagun berezia ikusten duzunean...?

Maitasuna egin ostean...?

Lagun bereziak beste pertsona bat gustatzen zaiola esaten dizu...

## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Testaren erantzunak

  Jonek *Cosmopolitan* aldizkariko galdetegiko hurrengo hiru galderetan zer erantzun duen aukeratu eta ikaskidearekin komentatuko dute.

#### **Zuzenketa:**

1-b

2-hirurak

3- b

## 2.2 Testaren emaitza



Jonek erantzun duena kontuan hartuta, zein izan da galdetegiaren emaitza? erantzuna idatzi eta ikaskidearekin partekatu dezatela gauza bera ulertu duten jakiteko.

**Zuzenketa:**

**JONE:** Bueno, hauxe emaitza. Ez duzu zure lagun berezia lagun soil gisa nahi. Sexua baino gehiago bilatzen duzu...

## 2.3 Testari buruz



Azken bi galdereri erantzun eta ikaskidearekin partekatuko dute. Ondoren, horrelako galdetegiari buruz zer pentsatzen duten komentatuko dute elkarrekin.

**Zein iritzi dauka Jonek horrelako testei buruz?**

Debebatuta egon beharko lukete

**Eta neskak, zertarako erabili du testaren aitzakia?**

Jonek bien arteko harremanari buruz zer pentsatzen duen ezagutzeko

## 3. ENTZUN ONDOREN

### 3.1. Zeu kazetari

Ikasleek elkarrizketako galdetegiari jarraipena emango diote. Horretarako, aitzakia izango da beraiek kazetariak direla pentsatzea eta hainbat pertsonaia ospetsuei buruzko informazioa lortzea. 4 galdera gehiago egin behar dituzte guztira, bikote bakoitzak bat edo bi gehienez. Galderen erantzun posibleak ere eman behar dituzte. Azkenik, talde handira eraman eta denen artean adostuko dituzte galderak.

### 3.2 Emaizten berri eman



Dokumentuan dituzten pertsonaien artean bana aukeratuko dute (edo beraiek nahi duten beste edozein) eta elkarri egingo dizkiote galderak. Bakoitzak aukeratutako pertsonaiaren erantzunak emango ditu. Taldeko gainerako ikasleek ez dute jakin behar zein pertsonaia diren. Bikote bakoitzak elkarri galderak egin ondoren, emaitzak aztertu, azalpena prestatu eta talde handira eraman behar dituzte ondorioak. Gainerako ikaskideek asmatu behar dute zein pertsonaiari buruz ari diren. Azalpena osatzeko hainbat adibide dituzte:



**Adibideak lagungarria izan daitezke zure azalpena sortzeko garaian:**

- *Ez duzu zure lagun berezia lagun soil gisa nahi...*
- *Sexua baino gehiago bilatzen duzu harreman horretan...*
- *Asko ezagutu ez arren, ukaezina da bion arteko konfiantza nahiko handia dela...*
- *Egunerokotasunetik ateratzeko irrikaz zaude, hori dela eta...*
- *Oso pertsona tradizionala eta ikuspegi kontserbadorea duzu. Erljioak ezarritako baloreak zorrozki jarraitzen dituzu, eta ez duzu bestelako joerarik onartzen.*
- *Noizean behin araua hausten baduzu ere, ausardia handi goa falta zaizu.*
- *Lagun berezia baino gehiago izatea bilatzen saiatzen zara, baina ahalegin horretan ez duzu harreman egonkor baten ziurtasuna utzi nahi.*
- *Ez duzu harreman iraunkorretan sinisten. Zure ustez, leialtasuna aspergarria da, eta denbora luzeko harremana duten bikoteek ez dakite bizitza behar bezala gozaten.*
- .....

			
<b>Belen Esteban</b>	<b>Karlos Argiñano</b>	<b>Ane Igartiburu</b>	<b>Xabi Alonso</b>

## BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Segidan dituzu elkarrizketan entzun dituzun hainbat esaldi berriak osa ditzazun. Horretarako, azpimarratuta duden zatiak ordezkatu behar dituzu lodiz dauden hitzak erabiliz. Egin beharrezko aldaketak esaldia osatzeko, eta azkenean, ikusi ereduak egin duzunarekin alderatzeko.

	Ereduak ikusi:
Oraintxe erantzun behar al dut? Bai, <u>ez du luze eramango</u> <b>denbora kendu</b>	<b>Ez digu denbora askorik kenduko</b>
<u>Gau osoa berarekin hitz egin zenezake</u> oheratzeko gogorik sentitu gabe <b>eman</b>	<b>Gau osoa berarekin hitz egiten eman dezakezu</b> oheratzeko gogorik sentitu gabe
<u>Maitasuna egin ostean</u> <b>larrutan</b>	<b>Larrutan egin ondoren</b>
<u>Orainaldiaz ari gara</u> eta <u>suposatzen da</u> lagun hori zu zarela, ezta? <b>-ri buruz</b> <b>ulertu</b>	<b>Egungo kontuei buruz hitz egiten ari gara eta</b> ulertu behar da lagun hori zu zarela, ezta?
Ez duzu pertsona hori <u>sekula berriro</u> ikusi nahi <b>inoiz</b>	<b>Ez duzu pertsona hori inoiz gehiago ikusi nahi</b>
Illegalak <u>beharko lukete</u> horrelako testek <b>izan</b>	<b>Illegalak izan beharko lukete horrelako testek</b>
seguru nago batek baino gehiagok <u>serio hartzen</u> dituela <b>egiatzat</b>	<b>seguru nago batek baino gehiagok egiatzat jotzen</b> dituela
Badakizu ez dakizula gezurrik esaten. Nik behintzat <u>segituan igartzen dizut</u>	<b>Nik behintzat berehala nabaritzen dizut</b>

<b>berehala, nabaritu</b>	
---------------------------	--

**TRANSKRIPZIOA**

JONE: Ea Jon erantzun galdera hauei: zure lagun bereziari...

JON: Zein galdera? Zertarako?

JONE: Zuk erantzun besterik gabe, test bat da, zure lagun bereziari deitzen diozunean a) eguneroko gauzak kontatzen dizkiozu, b) pare bat minutuz hitz egiten duzu berarekin edo d) mimoak nahi dituzulako soilik deitzen diozu?

JON: Oraintxe erantzun behar al dizut?

JONE: Bai, ez du luze eramango.

JON: Benga bada, A

JONE: Zure lagun berezi hori ikusten duzunean: a) bere gainera salto egiten duzu, b) zure desira kontrolatzen duzu edo d) gau osoa berarekin hitz egin zenezake oheratzeko gogorik sentitu gabe?

JON: Batzuetan A besteetan B

JONE: Erantzun bakarra

JON: A nire fantasietan, baina errealitatean B

JONE: Maitasuna egin ostean.

JON: Maitasuna egin jajajaja zer da maitasuna egitea?

JONE: Badakizu Jon.

JON: Maitasuna egin edo larrutan egin?

JONE: Maitasuna egin jartzen du. "hacer el amor", bueno maitasuna egin ostean a) gehiago nahi duzu? b)Lo geratzen zara? d)Alde egiteko eskatzen diozu?

JON: Ea... bada...hirurak.

JONE: Nola hirurak?

JON: Bada "depende"...Ea, beste pertsona edo lagun berezi hori nor da?

JONE: Zuk jakingo duzu?

JON: "Eske" "depende" nor den, erantzuna ezberdina da.

JONE: Orduan lagun berezi bat baino gehiago duzu?

JON: Ez, beraz, orainaldiaz ari gara eta lagun hori "suposatzen" (ulertu behar) da zu zarela ezta?

JONE: Hori zuk jakin beharko zenuke.

JONE: Bueno jarraitu dezagun. Lagun bereziak beste pertsona bat gustatzen zaiola esaten dizu. a) ez zaizu inporta, harekin oheratzen jarraitzeko aukera duzun bitartean b) bihotza apurtzen dizu d) ez duzu sekula berriro ikusi nahi...

JON: Baina zein test klase da hau?

JONE: Zuk erantzun..

JON: Bihotza apurtzen dit, baina ez zait inporta berriro oheratzea.

JONE: A edo b?

JON: Joder Jone.. eta nik zer dakit?

JONE: A edo b?

JON: B

JONE: Bueno, hauxe emaitza. Ez duzu zure lagun berezia lagun soila gisa nahi. Sexua baino gehiago bilatzen duzu...

JON: Bale, eta hori jakiteko test bat egin behar zenidan, benetan?

JONE: Badakizu kotoiaren frogarena ezta? Ba hau Cosmopolitan froga da.

---

JON: Illegalak beharko lukete horrelako testak. Seguru nago batek baino gehiagok serio hartzen dituela.

JONE: Ia, ia, zuk nahi duzuna esan, baina bestela esango ez zenizkidakeen gauzak esan dizkidazu.

JON: Baina igual gezurretan ibili naiz.

JONE: Gezurretan ibili zara?

JON: Zalantza horrekin bizi beharko duzu.

JONE: Uuuuhhh ongi geratu zaizu esaldia. Baina badakizu ez dakizula gezurrik esaten. Nik behintzat berehala nabaritzen dizut.

JON: Aizu Jone, eta zuk, zure lagun bereziari deitzen diozunean eguneroko gauzak kontatzen dizkiozu edo mimoak soilik nahi dituzu?